

HAEGUE YANG eta HYUNJIN KIM

"We Rule the School" izeneko mintegian, "Can Agency Speak?" ("Agentziak hitz egin dezake?", agentzia subjektu eta objektu gisa ulertuta) izenburuko hitzaldian, Haegue Yang artista eta Hyunjin Kim komisario eta idazlea "sorterriko informatzailea" kontzeptuaz mintzatu ziren. Kontzeptu horrekin identifikatuta sentitzen dira bi emakumeak, eta kontzeptu horrez baliatu ziren egun beren jaioterrian, Korean, arteak duen egoera aztertzeko. *A critique of Postcolonial Reason* izenburuko liburutik hartu dute aipatutako kontzeptua, bertan Gayatri Spivakek aztertzen baitu berak "sorterriko informatzailea" izendatzen duenak pairatzen duen bazterketa. Figura horrek sorterriko hizkuntza hitz egiten du, eta "koloniar" eskain diezaioke bere sorterriari buruzko informazioa. Beraz, esan daiteke "sorterriko informatzailea", argi eta garbi, kolonialismoarekin batera hedatu dela.

Haegue Yang eta Hyunjin Kim Korean jaiotako artistak eta komisarioak dira, baina Europa mendebaldeko herrialdeetan bizi dira eta bertan garatzen ari dira beren arte jardunbidea. Haegue Frankfurten bizi da, eta Hyunjin Eindhovenen. Aditzera eman zuten, "guk, sorterriko informatzaile gisa, geure burua aztertzeko eta autokritika etengabe egiteko beharra partekatzen dugu, era horretan ikus baitezakegu zer neurritako barne kolonizaziora iritsi garen". Kolonialismoak ez dio eragiten herrialdeen okupazio fisikoari soilik, izan ere kolonialismo sinbolikoak, hautematen zailago eta beraz ezabatzen ere zailagoa baita, pertsonen irudikarian bizirauten du. Horregatik guztiagatik, "sorterriko informatzaileen" subjektibotasuna kolonialismoaren ondoko botereak duen egituraren oinarrietako bat da, nahiz eta askotan informatzaileak lehen munduko herrialdeetan isilik egotera eta itzalpean bizitzera behartuta egon.



Kolonialismo sinbolikoa hauteman eta aztertu behar dugu, hartara aurre egin ahal izango diogulako, Haegue Yangen eta Hyunjin Kimen iritziz. Korearen modernizazio prozesua 60ko urteen bukaeran hasi zen, Chung Hee Park jenerala buru zuen gobernu militarrek sustatutako garapen ekonomikoarekin batera. Erregimen totalitario horrek boterean iraun zuen 1979 arte, Chun Hee Park erail zuten urtera arte, alegia. Hurrengo kabineteak, Chun Doo Hwan jenerala buru zuela, gerra legea ezarri zuen 1980an, eta milaka izan ziren errepresioak sorrarazi zituen biktimak. 1980ko hamarkadan etengabekoak izan ziren greba jendetsuak eta atxilotzeak, hauteskundeetan iruzurrek eta askatasun publiko handiagoa aldarrikatzen zuten eskaerak markatutako herrialdean. Nahiz eta 1990ko urteetan herrialdeak barneko demokratizazioari ekin, mantendu egin dira erregimen totalitarioen alderdi batzuk: hain zuzen ere, autoritarismoa, patriarkatua eta indibidualismoaren aurkako jarrera oso zabaldua daude gaur egungo gizarte korearrean. "Adostasunaren diktadura gure kontzientzietan finkatu da, eta gure eguneroko bizitza menderatzen du.

Diktaduraren aurkako erresistentzia gure barnean dago, baina, aldi berean, diktaduraren alderdi batzuk barneratuak ditugu", azaldu zuen Haegue Yangek.

Argiak eta itzalak Koreako artearen agertokian

Gaur egun, Asia ekialdean sortuak diren artista ugari bizi dira Europako herrialdeetan, eta bertan lan egiten dute. Korea demokratizatzeak berekin ekarri zuen internet berehala hedatzea, eta atzerrian ikasten ari diren pertsonen eragina garrantzi handikoa izan da herrialdeak kulturaren izan duen hazkuntzan. "Belaunaldi gazteek antolatutako kultur ekitaldiak eta jarduerak ugaritu dira: *queer* mugimendua, hautabidezko arte mugimenduetan aktibismoa, eta izaera askotariko bideo eta arte ekitaldiak", azaldu zuen Hyunjin Kimek. Gobernuak artearen mundua suspertzen lagundu du, programak garatu eta diruz lagundutako jarduerak sustatu ditu. Hainbat ekitaldik, hala nola Gwangjuko biurtekoak, ahalbidetu dute nazioarteko artearen agertokia orain arte bakartuta egon den agertoki korearrean azaltzea. Mugimendu horien guztien ondorioz areagotu da Koreako Gobernuaren interesa bertako kultura eta gazteek nazioarteko esparruan sortutako artea sustatzeko. Hala ere, gobernuak bultzatu duen prozesu horretatik kanpo geratu dira Koreako artearen agertokiak oraindik ere pairatzen dituen arazoak, esaterako arte eskolak eta gaur egungo artearen agertokia bereizten dituen distantzia, arte sistemaren barruan boterea duten pertsonen jarrera faxistak, nazionalismoaren erretorika, eta orientalismoaren salmenta, bi artisten aburuz.

Ingurune horretan, "sorterriko informatzaileek", lehenengo munduan ikasi duten eta bere sorterriara itzultzen direnak, bitartekoak bilatzeari ekin diote, beren herrialdearen eta atzerriaren artean harremanak finkatzearen. Horretarako, beren estatus pribilegiatuak eta hizkuntzak jakiteaz baliatzen dira. Ideiak eta ikusmolde berriak hedatzen jarduten dute, askotan mendebaldeko diskurtsoek eraginda; alabaina, aldi berean, nazioarteko arte eremuaren berri ematen dute. Pribilegiozko estatusa gozatzen dute, baina bazterturik geratzen dira bere jatorrizko herrialdean eta atzerrian, duten anbigutasuna dela eta. "Sorterriko informatzaileak" hainbat ondorio teorikoren elkarketa dira eta, berez, kolonialismoaren ondoko teoriari eusten diote. Erakusketari bukaera emateko, Haegue Yang eta Hyunjin Kimek, beren diskurtsoak duen arriskuaren jakitun, beren buruari galdetu zioten "Nola eraikitzen da agenziaren subjektibotasuna?", eta entzuleei egin zieten hitzaldiari hasiera emateko egin zuten galdera: "Agentziak hitz egin dezake?".

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.